

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Lizarrako Antzinako Musikaren Astean agur-bira egiten ari den The Hilliard Ensemble talde arrakastatsua izango da

45. edizioa irailaren 1etik 13ra izango da, lehen aldiz kalean, eta dantza-eta musika-ikuskizunak, konferentziak, zinema-ziklo bat eta haurrentzako jarduera pedagogiko bat egongo dira

Lunes, 16 de junio de 2014

[Lizarrako Antzinako Musikaren 45. Edizioan](#) The Hilliard Ensemble laukote britainiarrak kontzertua eskainiko du. Munduko ahotsezko ganbera-talde onenetariko bat da. Irailaren 1ean izango da kontzertua Lizarrako San Migel elizan. Egingo duten emanaldia Estatu Batuak, Australia, Erresuma Batua eta Europako beste herrialde batzuetatik egiten ari diren agur-biraren parte izango da.



Astearen aurkezpeneko une bat.

Laukoteak hasiko du irailaren 1etik 13ra izango den Lizarrako Antzinako Musikaren Astea. Programa nazioartean ospea duten taldeen bost kontzertuk, musika barrokoaren tailer batek, antzinako musikari eta Nafarroako Erdi Aroko hari-instrumentuei buruzko konferentziek, zinema-ziklo batek, musika- eta dantza-ikuskizunek eta haurrentzako jarduera pedagogiko batek osatuko dute.

Programaren xehetasunak www.culturavarra.es webgunean daude ikusgai, eta astelehen honetan aurkeztu du prentsaurrekoan Juan Luis Sánchez de Muniáin Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak. Azpimarratu du aurtengo Lizarrako Antzinako Musikaren Asteaz hiri osoan zehar gozatu ahal izango dela.

Programa antolatzean, Nafarroako Gobernua eta Lizarrako Udala lankidetzan aritu dira eta, aurten, berritasun gisa, inguruko hainbat saltoki, taberna, jatetxe, hotel eta upategik ere antolaketan lagundu dute, izan ere, bisita turistikoaren eta deskontuen eskaintza erakargarria prestatu dute Lizarrako Antzinako Musikaren Asteako kontzertuetara doan jendearentzat. Aurtengo jaialdiko aurrekontua 150.000 eurokoa da.

Nazioartean ospea duten taldeak

Lizarrako Antzinako Musikaren Astean nagusiki musika barrokoa entzungo da, nahiz eta Erdi Aroko eta Errenazimenduko musika ere

entzungai egongo diren, The Hilliard Ensemble laukoteak interpretatzen duena bezalako.

Programa Les Talens Lyriques (irailak 5), La Risonanza eta Roberta Invernizzi (irailak 6), Nafarroako Ganbera Abesbatzako Michael Navarrus kapera errenazentista (irailak 8), La Ritirata (irailak 12) eta Gli Incogniti y Amandine Beyer (irailak 13). Emanaldi guztiak San Migel elizan izango dira, 20:15etik aurrera.

Sarrerak www.culturana Navarra.es gunean egongo dira salgai. Abonamenduak abuztuaren 22ra arte eskuratu ahal izango dira 95 euroren truke (sei kontzertu) edo 54 euroren truke (hiru kontzertu).

Sarrerak, banaka, 20 euro dira (22 euro leihatilan, kontzertua hasi aurreko ordubetean, San Migel elizan) The Hilliard Ensemble, Les Talens Lyriques eta La Risonanza entzuteko, 18 euro (20 leihatilan) Gli Incogniti entzuteko eta 10 euro (12 leihatilan) Nafarroako Ganbera Abesbatza entzuteko. Gazte-txartelarekin, prezioa 6 euro da, 10 leihatilan.

Beste jarduera batzuk

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan jardunda dantza barrokoaren tailer bat antolatu da, irailak 2, 3 eta 4rako, Lizarrako Fray Diego kultura-etxean. Peio Otanok eskainitako ikastaroa izango da.

Lankidetzaren barruan bi konferentzia ere egingo dira. Lehenengoa Manuel Hornok eskainiko du eta antzinako musikari buruzkoa izango da (irailak 4, 20:00etan, Fray Diego kultura-etxean). Bigarrenaren hizlaria Enrique Galdeano izango da eta Nafarroako Erdi Aroko hari-instrumentuei buruzko konferentzia-kontzertua eskainiko du (irailak 10, 20:00etan, San Migel elizan).

Bestalde, zinema-ziklo bat antolatu da, garai barrokoari eta Händel edo Hasse bezalako musikagileei eskainia. Irailaren 9n Gérard Corbiau-ren "Farinelli" pelikula egongo da ikusgai eta, irailaren 11n, Stanley Kubrick zuzendariaren "Barry Lindon". Pelikulak Fray Diego kultura-etxean ikusi ahal izango dira, eta sarrera doakoa izango da, lekua bete arte.

Halaber, dantza- eta musika-ikuskizunak ere egongo dira herriko kaleetan, San Lorentzoko Danzanteen Kofradiaren (irailak 5, 18:00etan) eta Ensemble la Danserye taldearen (irailak 13, 13:00etan eta 19:00etan) eskutik, herriko kaleetan.

Amaitzeko, haurrentzako jarduera pedagogiko bat ere programatu da. Irailaren 13an izango da Fray Diego kultur etxean. "El mito de Orfeo" izenburupean, haurrak antzinako musikaren mundura gerturatzea da asmoa, musikarekin erlazionatutako ipuinak edo kondairak kontatuta eta azalpenek eta instrumentu historikoek lagunduta. Sarrera doakoa da, baina aurrez gonbidapena lortu behar da.